

KODE ETIKOA ETA JOKABIDE-ARAUAK



2017



2025



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai Cien por cien capaces

ZER DA KODE ETIKO BAT?	orria 2
ZERGATIK KODE ETIKO BAT LANTEGI BATUAKEN?	orria 2
NORK BETE BEHAR DU KODE ETIKOA?.....	orria 3
NOLA ERABILI KODE ETIKOA?	orria 4
JOKABIDE ORIENTABIDEAK ETA ARAUAK	orria 5
• Duintasunarekiko errespetua • Justizia eta inklusioa • Autonomia • Pribatutasuna eta intimitatea • Zuzentasuna eta legeari errespetua • konpromisoa bikaintasunarekin • Eraldaketa eta gizarte kohesioa	
KANALAN: Jokabide ez egokiak komunikatzeko kanala.....	orria 17
KODE ETIKOAREN KUDEAKETA	orria 18



ZER DA KODE ETIKO BAT?

Kode **Etiko** bat pertsonak babesten dituen arau multzoa eta nola jokatu behar dugunari buruzko printzipio multzoa da.

Erakunde baten kode etikoan jokabide arau hauek zein diren azaltzen da, erakundeko pertsona guztiek ezagutu ditzaten eta lanean horrela jokatu dezaten.

Etikoa:

Zeozer etikoa da, egokia eta bidezkoa denean.

ZERGATIK KODE ETIKO BAT LANTEGI BATUAKEN?

Lantegi Batuak **irabazi asmorik gabeko** erakunde bat da eta desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako lan aukerak sortzen ditu, batez ere, Bizkaiko desgaitasun intelektuala eta garapen desgaitasuna duten pertsonentzat.

Gure helburu nagusia da lanaren bitartez desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu ahal izatea eta lan garapen eta bizi kalitate hobea lortu ahal izatea.

Horretarako, lan ekimen iraunkorrak eta lehiakorrak kudeatzen ditugu. Pertsona hauei hainbat ibilbide eskaintzen dizkiegu lan munduan lanbideratzea lortzeko, baita hainbat zerbitzu ibilbide horren hasieratik bukaerara.

Lantegi Batuaken denon proiektu bat daukagu: beti pertsonetara zuzenduta dago. Gure proiektuak balio batzuk ditu, gure helburuak lortzeko gure lan egiteko modua gidatzen duten ideiak dira.

Lantegi Batuakeko Kode Etikoa hobeto lan egiten eta elkarrekin bizitzen lagunduko diguten **printzipio** eta jokabide arau multzo batez osatua dago. Arau horiek bete egin behar dira eta ez badira betetzen salatu egin behar da.

Irabazi asmorik gabekoa:

Bere helburu nagusia ez da dirua irabaztea.

Printzipioak:

Gure ekintza eta portaerak beti gidatu behar dituzten ideia eta pentsamenduak dira.

NORK BETE BEHAR DU KODE ETIKOA?

Lantegi Batuak osatzen duten pertsona guztiei eragiten die Kode Etikoak. Erakundean lan egiten duten pertsonai, baina baita agintzen dutenei eta erakundearekin erlazionatzen diren beste pertsonai ere.

Kode Etikoak nola eragiten dien ikusteko, pertsonak 4 taldetan banatu ditugu:

- Pertsona guztiak
- Zeharkako postuak dituzten pertsonak
- Arduradun diren pertsonak
- Laguntza ematen duten pertsonak.

TALDEA	NORK OSATZEN DU TALDEA?
Pertsona guztiak 	Langileak + Patronatuko kideak
Zeharkako postuak dituzten pertsonak 	Zuzendaritza taldeko langileak + A, B eta C talde profesionaletako langileak
Arduradun diren pertsonak 	Zuzendaritza taldeko langileak + A taldeko langileak eta B taldeko zenbait postu (kudeaketa edo pertsonen arduradunak)
Laguntza ematen duten pertsonak.	Kuradoretza epai batean oinarrituta, laguntza edo ordezkari ematen duten senideak, profesionalak, erakundeak....

Zerbitzu Okupazionala:

Zerbitzu Okupazionala **gizarte zerbitzua** da.

Zerbitzu honetan lan egiten duten pertsonen eta Lantegi Batuak arteko harremana da arretakoa, laguntzakoa eta prestakuntzakoa, ez lanekoa.

Horregatik, Kode Etikoaren jokabide batzuek ez diete eragiten.

Zerbitzu honetan betetzen dira zerbitzuko Eskubideen eta Betebeharren Gutuneko arau etikoak eta legalak.

Kuradoretza:

epaile batek erabakitzen duenean pertsona batek laguntza behar duela bizitzako alderdi garrantzitsuetarako, hala nola ekonomia- edo osasun-gaietarako.

Gizarte zerbitzua:

pertsonen ongizatea eta gizarteratzea lortzea helburu duten programa publikoak dira.

NOLA ERABILI KODE ETIKOA?

Kode Etikoa indarrean jarri da 2017ko Maiatzaren 8an, Lantegi Batuakeko Patronatuak onartu duenean. 2025eko martxoan eguneratze bat onartu da.

Kode Etikoko arauak bete ahal izateko Lantegi Batuakeko pertsona guztiek ezagutu behar dituzte.

Arau hauek betetzen ez badira, hau nola salatu dezaketen ere ezagutu behar dute. Arauak betetzen ez direla salatzen bada, gertakariak ikertuko dira eta hitzarmenean datozen zigorrak jarri daitezke.

Lantegi Batuakeko Betetze Unitatea hauetaz arduratzen da:

- Pertsona guztientzako Kode Etikoaren hedapena bultzatu, hauen bidez:
 - Kodea azaltzen duten ikastaroak
 - www.lantegibatuak.eus webgunean argitaratuta
 - **Intralanen** argitaratuta.
- Kodea betetzen dela zaindu.
- **Kanalanen** bitartez gertakariak kudeatu.

Beharrezkoa denean kodea berrikusi eta aldatu daiteke. Aldaketa hauek Patronatuak onartu behar ditu.

Intralan:

Lantegi Batuakeko barneko webgunea da. Lantegi Batuaken lan egiten dugun pertsonak bakarrik erabil dezakegu

Kanalan:

17. orrialdean kanal hau zer den eta nola erabiltzen den azalduko dizugu.



Jokabide printzipioak eta arauak

DUINTASUNAREKIKO ERRESPETUA

Pertsonak nor bere kasa baliodunak dira, duintasuna dutelako. Horregatik, begirunez eta errespetuz tratatzea merezi dute, kontuan izan gabe haien gaitasunak edo egoera pertsonalak, bizitzakoak edo lanekoak. Printzipio hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiek:

- Besteak errespetuz eta duintasunez tratatuko dituzte
- Edozein tratu txar motari uko egingo diote: **abusu**, **eraso**, baztertze edo tratu txar...
- Pertsona bakoitzaren desberdintasunak errespetatuko dituzte (ezaugarriak, ideiak, erlijioa, **sexu-orientazioa**, kultura, balioak, sinesmenak).
- Pertsonen erabakiak errespetatuko dituzte, betiere gainerako pertsonen eskubideei ez badiete eragiten.
- Norbait baztertzea edo kanpoan uztea eragiten duen edozein motako diskriminazio edo **estigma** saihestuko dute.
- Saihestuko dute hizkera sexista, **homofobia** edo ulertezina erabiltzea, eta jendaurrean, negatiboak, faltsuak edo baztertzen edo kalte egiten duten iruzkinak egitea
- Ezin dute beldurtu, behartu, engainatu, manipulatu edo beste pertsona baten duintasunari edo eskubideei kalte egiten dion zerbait egin.
- Abusu edo eraso egoerak jakinarazi behar dituzte, protokoloei jarraituta. Oso garrantzitsua da norbaitek defendatzeko edo eskubideak betetzeko laguntza behar badu.
- Ezin dute kalte fisiko, psikologiko, moral, ekonomiko edo sexualik eragin dezakeen jokabiderik izan.

Abusua:

Pertsona batek edo batzuek beste bati egin diezaiokeen bidegabekeria edo esplotazioa. Hauengatik gerta daiteke: gehiegizko autoritatea, konfiantza, harreman pertsonaletan, indar-harremanetan.

Erasoa:

Pertsona bati behin eta berriz erasotzea edo enbarazu egitea.

Sexu-orientazioa:

Pertsona batek beste pertsonetara sentitzen duen erakarpen emozionala, erromantikoa edo sexu-desira. Iraunkorra da..

Estigma:

Gizarte edo talde batek zerbaiti buruz duen sinesmen negatiboa.

Homofobia:

Homosexualekiko arbuioa, bazterkeria edo gorrotoa sentitzen duen pertsona.

Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Autonomia eta gaitasun gutxiago duten eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonen eskubideak babestu eta defendatuko dituzte.
- Pertsonak eskubideak berdintasunean gauzatu ditzaten behar dituzten laguntzak eskainiko dizkiete.

Arduradun diren pertsonak:

- Pertsona guztiek dituzten eskubideak eta betebeharrak uler ditzaten lagunduko dute. Baita gainerako pertsonakiko eskubideen errespetutik elkar bizi ahal izateko arauak uler ditzaten ere.
- **Iraingarria** diren edo errespetu gutxiko portaerak edo iruzkinak zuzentzen lagunduko dute, batez ere jendaurrean egindakoak.
- Pertsonen lan hobetze eta hobetze pertsonalen emaitzak ebaluatuko dituzte.
- Lan aukerak erraztuko dituzte batez ere pertsonaren gaitasunak kontuan hartuta, pertsonen mugak baino.
- Laguntza eta ikastaroen bitartez, lan garapenean eta garapen pertsonalean hobetzen lagunduko diete.

Iraingarria:

Pertsona bat iraintzen edo beheratzen duen tratua.

Laguntza ematen duten kanpoko pertsonak:

- Pertsona horien duintasuna eta eskubideak babesteko Lantegi Batuakeko profesionalekin lankidetzan arituko dira.



JUSTIZIA ETA INKLUSIOA

Pertsona guztiek duintasun bera dute.
Beraz, duintasunez bizitzeko
eskubide eta aukera berak izan behar dituzte.
Horrek justiziaren eta inklusioaren
printzipioak errespetatzea ekartzen du.

Justiziak esan nahi du ez dela diskriminaziorik egon behar.
Justizia da laguntza ematea
eta neurri bereziak hartzea ere,
pertsonek gizartean eta lanean
aukera berdinetan parte hartu ahal izateko.

Printzipio hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiak:

- Era pertsonalizatuan tratatuak izango dira,
bakoitzaren planaren arabera
(nahiak, beharrak eta laguntzak).
- Bidegabeko, tratu txarreko edo esplotazio egoerak
salatu beharko dituzte.
- Ez dituzte baztertzen duten portaerak izango,
iruzkinak egingo edo erabakiak hartuko
batez ere, desgaitasunagatik edo generoagatik.

Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Aukeren berdintasuna ziurtatu behar dute.
Beraz, horrelako portaera izango dute:
 - ez diskriminatzailea
 - irizpide objektiboekin, argiekin eta ulergarrieekin
 - aurreiritzirik eta faboritismorik gabe.
- Laguntza behar gehien duten pertsonen
inklusioa ziurtatu behar dute
(orientabidea, prestakuntza,
egokitzapena...).



Arduradun diren pertsonak:

- Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa bultzatu behar dute, adimen desgaitasuna dutenena bereziki (neurri positiboak, barneko deialdiak...).
- Baliabideak, prestakuntza eta ezagutzak eskainiko dituzte ahozko komunikazioa eta kognitiboa irisgarria izan dadin. Honek laguntza behar gehien duten pertsonen gizarteko eta laneko harremanetan, eta laneko ibilbidean hobetzeko aukeretan baztertua ez sentitzen laguntzen die.
- Lehenetsia emango diete gizarteratzean laguntzen duten lan bilatzeari eta eskaintzari, desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten pertsonak bereiztea edo baztertea saihesteko. Leku eta zerbitzu guztietan enplegua sustatuko dute, baita kudeaketa postuetan ere.

Laguntza ematen duten kanpoko pertsonak:

- Lantegi Batuak beharrezko informazioa emango diote inor lan ibilbidetik baztertua gera ez dadin.
- **Interes-gatazka** badago, pertsona guztientzako bidezko irtenbide orekatuak bilatuko dituzte.

Interes-gatazka:

Pertsona edo erakunde batek lanean erabaki objektiboak eta inpartzialak hartzerakoan eragina izan dezaketen interes pribatuak dituenean gertatzen den egoera.

AUTONOMIA

Eragiten digunari buruz erabakitzeko eta jarduteko askatasuna da autonomia pertsonala.

Gauzak egiteko balio duen autonomia funtzionala, erabakiak hartzeko autonomia bezala, errespetatzen eta sustatzen da laguntza emanez, batez ere, desgaitasun intelektuala eta garapen desgaitasuna duten pertsonen.

Printzipio hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiek:

- Pertsonen estimua, irudia edo ohorea mindu dezaketen portaerak saihestuko dituzte.
- Pertsona batek bizitza pertsonalari, jabetzei eta halakoei buruz erabaki libreak hartu ahal izatea eragozten duten derrigortzeak, manipulazioak eta edozein motako influentziak saihestuko dituzte.

Zeharkako postuak dituzten pertsonen:

- Pertsonen iritzia emateko eta erabakiak hartzeko autonomia errespetatuko dute.
- Pertsonen parte-hartzea bultzatuko dute laguntzak lantzeko eta ebaluatzeko, hauen bitartez:
 - entzute aktiboa
 - hizkera egokia
 - iradokizunak eta kexak nola egiteko informazioa.
- Harreman positiboak dituzte senideekin eta tutoreekin:
 - iritzia eman eta proposamenak egin ditzaten
 - balorazioen eta erabakien informazioa izan dezaten
 - pertsonaren lan-prozesuan parte har dezaten
 - baliabideak eta laguntzak izan ditzaten.

Arduradun diren pertsonek:


- Pertsonen autonomia eta askatasuna eragozten dituzten oztopo fisikoak, komunikaziozkoak, kognitiboak edo kulturalak egon ez daitezela erraztuko dute.
- Lan eta gizarte-arloetan sortzen diren beharretan lagunduko diete laguntza ematen duten kanpoko erreferentziazko pertsonei eta **ahalmen juridikoa** gauzatzeko laguntza ematen duten arduradunei edo erakundeei. Pertsonen onuraren eta autonomiaren alde beti.

Ahalmen juridikoa:

Haren eskubideen jabe izateko gaitasuna duen pertsona, hala nola, botoa emateko, etxea izateko, kontratu bat sinatzeko, seme-alabak zaintzeko...

Laguntza ematen duten kanpoko pertsonek:

- Lantegi Batuakeko profesionalak jakinaraziko diete pertsonen segurtasunean eragiten duen guztia.
- Pertsonen eskubideak babesteko beharrezkoa den informazio juridikoa, osasuneko eta soziala aurkeztuko dute. Lantegi Batuakeko profesionalak bakarrik ezagutuko dute informazio hori beharrezko laguntzak eta egokitzapenak errazteko, eta konfidentzialtasunez tratatuko dute.



PRIBATUTASUNA ETA INTIMITATEA

Pertsonen gauza pribatuak errespetatzen eta babesten dira, hala nola gorputzaren intimitatea, irudia, datu pertsonalak...

Mota horretako informazioa bakarrik kasu berezietan eskura daiteke, pertsonaren baimenarekin eta bere onurarako, edo premiazko egoeretan pertsonari edo beste batzuei kalte larriak saihesteko.

Printzipio hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiek:

- Pertsonen intimitatearen eta **konfidentzialtasunaren** eskubidea errespetatuko dute beste pertsonen informazio pribatura sarbidea dutenean. Bereziki babestuko dituzte osasunari, ekonomiari eta beste edozein informazio pertsonalari buruzko datuak.
- Laneko instalazioetan edo lanpostuetan baimenik gabe argazkiak egitea edo irudiak grabatzea debekatuta izango dute. Batez ere irudi horiek pertsonen irudiari edo ohoreari eragin badiezaiokete. Irudiak argitaratzeko pertsonaren baimena izan behar dute.
- Lantegi Batuakeko lanari edo bezeroekiko harremanei buruzko informazioa sekretuan gordeko dute.
- Lantegi Batuaken edo beste batzuen produktuen, programen eta zerbitzuen **jabetza intelektuala** eta erabileraren eskubidea errespetatuko dute.
- Euskarri informatikoak modu seguruan, etikoan eta arduratsuan erabiliko dituzte eta erakundearen segurtasun araei jarraituko diete

Konfidentzialtasuna:

zerbait Konfidentziala da beste pertsona batzuei konfiantzaz eta segurtasunez egiten edo esaten zaienean isilpean gordetzeko.

Jabetza intelektuala:

Norbaitek zerbait asmatzen, liburu bat idazten edo zeozer artistikoa sortzen badu, hau egin duen pertsona egileztat onartu behar da.

Zeharkako postuak dituzten pertsonek:

- Informazioaren sekretua errespetatuko dute, batez ere desgaitasuna duten pertsonen edo gaixotasun mentala duten pertsonen osasunarekin eta ongizatarekin zerikusia duena. Informazio hori ez dute partekatuko eta babestuta gordeko dute.
- Salbuespena: pertsonak erabakiak hartu ezin dituenetan eta babesteko bere informazioa partekatzea behar duenean. Edo beste pertsonei edo erakundeari kalte edo lesio larriak saihesteko beharrezkoa denean. Kasu horietan, informazioa bakarrik partekatuko da pertsonaren ongizatea babesteko.

Arduradun diren pertsonek:

- Senideei edo tutoreei jakinaraziko dizkiete aldaketak edo pertsonarentzat arrisku egoerak, honi buruz erabakiak hartu ahal ditzaten.



ZUZENTASUNA ETA LEGEARI ERRESPETUA

Legeak pertsona guztiek bete behar ditugun arauak dira. Legeak debekatzen dituen portaerak daude eta gizartearentzat egokiak eta positiboak diren beste portaera zuzenak daude.

Printzipio hau kontuan izanik:

Zuzentasuna:

Pertsona zintzoen eta betebeharrak betetzen dituztenen ezaugarria.

Lantegi Batuakeko pertsona guztiek:

- Legez behartuta daudena beteko dute, Kode honen eta erakundearen barneko arauekin batera.
- Segurtasuneko eta Osasuneko gaietan, eta lan giro osasuntsua, irisgarria eta segurua ziurtatzeko hau egin beharko dute:
 - Babesteko ekipamendua erabili.
 - Segurtasun seinale eta oharrak errespetatu.
 - Osasun, segurtasun eta arriskuak prebenitzeko praktikak sustatu.
 - Arduradunei jakinarazi pertsonentzako egon daitezkeen arriskuei buruz edo eskubide bat betetzen ez bada.
- Portaera etiko eta legezko gaietan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, hau egin beharko dute:
 - instalazioak, materialak eta baliabideak zaindu
 - lanerako bakarrik erabili (erabilpen pertsonalerako baimena behar da)
 - informazio zuzena eta egiazkoa eman
 - besteen aurrean Lantegi Batuaken irudia eta ospea kaltetu dezaketen portaerak saihestu
 - ez onartu erabakiak hartzean eragin dezaketen **opariak**, dirua, zerbitzuak edo faborezko tratuak.
- Erakundeko pertsona guztiek ingurunea zaintzeko arauak errespetatuko dituzte. Baliabideak modu egokian erabiliko dituzte eta ahaleginak egingo dituzte ingurune naturala babesteko eta zaintzeko, ekintzen eraginak ahalik eta gehien murrizten.

Oparia:

Promozio motako opariak onartu daitezke, 100 euro baino gutxiago balio badute, ekitaldietara gonbidapenak... baina erakunderako badira, ez pertsonarentzako.



Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Portaera etiko eta legezko gaietan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, ezingo dute hau egin:
 - Besteen erabakiak hartzean eragiteko opariak, zerbitzuak edo mesedeak eskaini.
 - Legezkoak ez diren eragiketa ekonomikoak egin edo baimendu.
 - Erakundearen eragiten duten erabakietan **bakoitzaren interesak** lan interesen aurretik jarri.

Bakoitzaren interesa:

Adibidez, familiarteko baten alde egin hornitzaileen aukeraketan, langileen kontratazioan...

Arduradun diren pertsonak:

- Segurtasuneko eta Osasuneko gaietan, eta lan giro osasuntsu, irisgarri eta segurua ziurtatzeko hau egin beharko dute:
 - Informazioa eta ikastaroak eman arriskuen prebentziorako arauak bete daitezzen
 - Pertsonak lanean hastean edo postu aldaketetan erantzukizunez jardun eta segurtasuna eta osasuna zaindu.
- Inguruneeko gaietan, ingurunea babesteko, kalteak gutxitzeko eta **eraginkortasun energetikoa** hobetzeko, hau egin beharko dute:
 - ingurune-arauak betearazi
 - baliabideak ondo erabili eta kudeatu.
- Portaera etiko eta legezko gaietan, erakunde bezala modu zuzenean eta legeak errespetatuz jarduteko, ezingo dute hau egin:
 - Besteen erabakiak hartzean eragiteko opariak, zerbitzuak edo mesedeak eskaini.
 - Lantegi Batuak printzipioetatik eta legaltasunetik kanpora jardun eta **ustelkeria** onartu.

Eraginkortasun energetikoa:

Energia (gasa, ura, argindarra...) ez gehiegi erabiltzea edo gure erabilera murriztea. Gehiago ekoiztea energia gutxiagorekin.

Zeharkako postuak dituzten pertsonak eta Zerbitzu Okupazionalari arreta, laguntza eta prestakuntza ematen dioten arduradunak:

- Dagozkien lege eta betebeharrak guztiak beteko dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin koordinatuko dira lan guztia modu egokian egin dadin eta arreta ematen dieten pertsonen onurarako.

Ustelkeria:

Norbaitek bere onurarako boterea (politikoa, ekonomikoa...) gaizki erabiltzen duenean.

KONPROMISOA BIKAINTRASUNAREKIN

Gure erakundearen kalitatea bideratuta dago pertsonen lan onean eta gauzak gero eta hobeto egiteko saiatzean.

Printzipio hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiak:

- Lanean eta bezeroekin profesionalak izan behar dira, erakundearen arauak jarraituta.
- Produktuak eta zerbitzuak egiazko informazioarekin eskaini eta saldu beharko dituzte.
- Bezeroen datuen erabilera ona egin beharko dute. Ezin dira beste inori saldu edo eman.
- Ezarritako moduen arabera lan egiteko konpromisoa hartu behar dute, arretaz eta segurtasunez eta hobetzeko ahalegina eginez.
- Arduraz, lankidetzan eta eraginkortasunez taldean lan eta jardun behar dira.
- Etengabeko hobetzean saiatu beharko dira.

Zeharkako postuak dituzten pertsonak:

- Bezeroen datuak benetakoak direla egiaztatuko dute.
- Produktu eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko beti **berritasuna** bilatzen lan egingo dute.
- Desgaitasun duten pertsonen laguntza emateko prozesuetan arreta eta berrikuntza hobereana eskaintzen saiatuko dira.

Arduradun diren pertsonak:

- Material eta zerbitzuen hornitzaileekin harremanetan aukeratu, esleitu eta erosteko momentuan, Kode honen arauak eta gardentasun eskakizunak errespetatuko dituzte.
- Hornitzaileei legeak betetzea eskatuko diete Lantegi Batuakekin dituzten jardueretan eta harremanetan.
- Jasotako diru-laguntzen kudeaketa zuzenduko dute eta **auditoretzak** egingo dituzte.
- Kalitatea sustatuko dute arretan eta laguntza ematen duten kanpoko erreferentziazko pertsonen eta ahalmen juridikoa gauzatzeko laguntza ematen duten pertsonekin edo erakundeekin koordinatzerakoan.



Bikaintasuna:

Gauzak oso ondo egitea eta hobereenen artean egotea.

Berritasuna:

Zeozter berria dakarren edo duen aldaketa da. Adibidez: telefono mugikorra berritasuna izan zen, lehenago telefono finkoa bakarrik zegoelako.

Auditoretza:

Erakunde baten kontuetan kanpoko norbaitek egiten duen ikuskapena.

ERALDAKETA ETA GIZARTE KOHESIOA

Gizarte bidezkoago eta bateratuago bat lortzen laguntzea da gure erakundearen helburuetako bat. Baita Lantegi Batuakeko pertsona guztien eta harremanak dituzten gizarte taldeen parte hartzearekin eta laguntzarekin egitea ere.

Orientabide hau kontuan izanik:

Lantegi Batuakeko pertsona guztiek:

- Ingurunea errespetatzeko konpromisoa izango dute, babesteko eta jarduerarekin ahalik eta kalte gutxien egiteko.

Zeharkako postuak dituzten pertsonak:


- Gizarte inklusiboago baten barruan desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz gizartea sentsibilizatzeke foroetan eta sareetan parte hartuko dute ahal duten guztietan.

Arduradun diren pertsonak:

- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzean ere lan egiten duten beste erakunde publikoekin eta pribatuekin elkarlanean arituko dira.
- Aldaketa eragile gisa, desgaitasuna duten pertsonen laguntzaren alde lan egingo dute, horri lehentasuna emanez. Desgaitasuna duten pertsonen trebetasunei eta ahalmenei buruz sentsibilizatuko dituzte beste erakundeak eta pertsonak.
- Inguruko gizartearen eta ingurumenaren **jasangarritasunari** lagundu behar zaiola kontuan hartuta lan egingo dute.

Gizarte kohesioa:

Elkartuta dagoen eta pertsona guztien iritziak kontuan hartuta erabakiak hartzen dituen gizartea da.



Jasangarritasuna:

Zerbait jasangarria da ingurunea kaltetu gabe luzaroan iraun ahal izatea.

KANALAN: Jokabide ez egokiak komunikatzeko kanala

Lantegi Batuakekoak diren pertsona guztiek jokabide printzipio eta arau hauek bete behar dituzte.

Egoera baten aurrean nola jokatzeko zalantza badaukate galdetu egin ahal izango dute eta legearen edo Kode Etiko honen arauen kontra doazen jokabideez informazioa bildu dezakete. Horretarako, erakundeko pertsonak Kanalan daukate, gertakari ez egoki guzti hauek jakinarazteko kanala.

Nola komunika daitezke gertakariak?

- Internet bidez
 - kanalan@lantegibatuak.eus helbidera mezu elektronikoa bidalita
 - Lantegiko webgunean edo Intralanean (Kanalaren atalean) agertzen den formularioa beteta.
- Telefonoz
 - 946 62 00 42 zenbakira deituta.
- Postaz
Helbide honetara:
Betetze Unitatea
Txorierri Etorbidea, 12
48180 Loiu (Bizkaia)

Jasotako informazioa bideratua izan dadin, hau jaso behar du:

- Egokia ez den jokabidearen zergatia azaltzen duten ekintzen deskribapen laburra eta hau nola jakin den.
- Egokia ez den jokabidean sartuta dauden pertsonak eta saila, unitatea, zentroa edo zerbitzua.
- Gertakariak egiaztatuko dituzten edozein proba edo daturen erreferentzia.

Informazio hau ez da onartuko:

- Osatu gabe dagoena.
- Legearen edo Kode Etikoaren kontra ez doan
- jokabidea bada.

Kanalan bitartez jasotzen den informazioa Lantegi Batuak datu fitxategi baten parte izango da, eta hau ziurtatzen du:

- **Konfidentzialtasuna.**
- **Errepresaliarik** eza.
- Datu pertsonalen segurtasuna eta babesa, legeak ezartzen duen moduan.
- Kanalan ere betetzen du 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 legea.

Konfidentzialtasuna:

Konfiantzaz ematen eta besteei kontatuko ez zaielako segurtasunarekin ematen den informazioa.

Errepresalia:

Pertsona batek beste norbaiten kontra jokatzeko duenean, honek aurretik iraindu edo mina egin diolako.

KODE ETIKOAREN KUDEAKETA

Nor arduratuko da Kodea bete dadila?

Betetze programa osatzen dute:

- Kode Etikoak eta Jokabideen Arauak
- Kanalanek
- Betetzeari buruzko politikak

Kode Etikoaren printzipioak

Arauen Betetze Batzordeak zabaltzen ditu.
Hori egiten du Betetze Unitatearen,
pertsonalaren harreraren, sentsibilizazioen
eta halakoen bidez.

Kanalanetik kudeatzen da

Kode Etikoan betetzen ez den guztia.
Beharrezko ikerketak egiten dira
eta zigorak proposatzen dira.

Noiz hasten da lanean?

Lantegi Batuakeko Patronatuak

Kode Etikoa eta Jokabideen Araua
onartzen dituen egunean.

Nola emango da honen berri?

Lantegi Batuakeko langile guztiei emango zaizkie
Kode Etikoa eta Jokabideen Araua.

Dokumentuak aurki daitezke hemen:

- Lantegi Batuakeko webgunean: www.lantegibatuak.eus
- Lantegi Batuakeko Intralanean: intralan.

Kode Etikoari buruzko ikastaroak egingo dira
pertsone guztiek ulertzen dutela
eta bete dezaketela ziurtatzeko.

Noiz eta nola berrikusiko eta aldatuko da?

Arauen Betetze Batzordeak noizbehinka

Kode Etikoa berrikusiko du,
zerbait aldatu behar den ikusteko.
Berrikusteko unera arte egon diren
gorabeherak eta galderak hartuko dira kontuan.
Baita Lantegi Batuaken barruko eta kanpoko aldaketak ere.

Batzordeak Kode Etikoaren aldaketak
proposatuko dizkio Kontseilu Betearazleari.
Kontseiluak Patronatuari jakinaraziko dio
beharrezkoa dela iruditzen bazaio.

Patronatuak edo Kontseilu Betearazleak
aldaketak onartu behar dituzte.

